



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko abenduaren 31

123. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- 2003 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoko zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketa (2. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Nafarroako landa garapenari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 1eko 4/1988 Foru Legea aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (12. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Adierazpen instituzionala, Nafarroako Parlamentuak Galiziako “Nunca Más” herritarren plataformak egintako manifestuari sostengua adieraztekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileentzako 2003. urteko lan egutegia (16. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Bulego Orokorretako erregistroaren 2003. urteko ordutegi ofiziala (17. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari baten lanpostua oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko. Izendapen proposamena (17. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile izateko lanpostu huts bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko. Izendapena (18. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **2003 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua**

### *OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK*

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, foru parlamentari Fernando Barrena Arza jaunak, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak 2003 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari osoko zuzenketa bana aurkeztu zuten.

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, 2003 ekitaldirako

Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordera igortzen da.

Iruñean, 2001eko abenduaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## **Foru Lege proiektua, Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duena**

### *AURKEZTUTAKO ZUZENKETA*

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari egin zaion zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Proiektu hori 2002ko azaroaren 4ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **1. ZUZENKETA**

FORU PARLAMENTARI  
**JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI**  
**FERNÁNDEZ DE BARRENA**  
JAUNAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa.

“2. artikulua. Nafarroako Gobernuak laguntzen araubide berezi bat ezarriko du; araubide horrek hiriguneen barruan dauden eta beren ustategiarekin tokiko hirigintza planeamenduan eta ingurumen eta osasun arau orokorrek baimendutako leku batean jarraitu nahi duten abeltzainek egindako inbertsioaren ehuneko 70eraino hartuko du. Halaber, araubide hori bera aplikatuko zaie hiriguneetatik kanpo oin berriko instalazioetan inbertsioak egin eta hirigunetik urrun egoteagatik kalteturik atera direnei, baldin eta jarduera berriz ere lekuz aldatu nahi badute.

Bi kasuetan eraikuntza berriak lehengo ukuilua itxi beharra ekarriko du.

Zioak: Nafarroako leku gehienetan dagoen eta ahalegin nabarmena eskatzen duen arazo bati konponbidea ematea.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## Foru Lege proposamena, Nafarroako landa garapenari buruzkoa

### AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako landa garapenari buruzko Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2002ko apirilaren 23ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### 1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

#### 1. ZUZENKETA

##### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Zeukan testuaren ordez beste hau jar dadila proposatzen da:

1. artikulua. Lege honen xedea.

Lege honen xedea hau da:

– Helburuak eta berariazko garapen-estrategia bat zehaztea, Nafarroako landa-ingurunera zuzendurikoa, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen jarduerak gidatzeko, landa garapenaren gaietan.

– Esparru juridiko bat zehaztu eta ezartzea, landa garapenari buruzko lege hau Nafarroan nola aplikatu arautuko duena, eta bereziki gidatu behar duena Nafarroako Foru Komunitateko landa-eremuekiko garapenera bideraturiko politikak.

– Antolaketa- eta finantza-tresnak zehaztea, landa garapenari buruzko lege honen aplikazio koherentea, parte-hartzezkoa eta orekatua ahalbidetzeko, Nafarroaren landa garapenean eragina daukaten gainerako politikekin eta administrazio-jarduerekin batera.

Foru Lege honi dagokionez, honako hau hartuko da landa garapentzat:

– Nafarroako landa ingurunearen lehiakortasun, kohesio eta lurralde-jasangarritasuna etengabe hobetzeko prozesua, erkidegoko landa ingurunearen esparru ekonomiko, sozial eta ingurumenekoan:

- Ekonomia.- Lehen sektoreko jarduera finkatuz merkatuko joera orokorren eta Europak sektoreari ezarritako murrizketen arabera, eta landa-eremuekiko dirusarrera-iturriak lurralde bakoitzaren ezaugarrien arabera dibertsifikatuz, gure landa ingurunearen etorkizuna kolokan jarri gabe eta hori balorizatuz.

- Gizartea.- Landa inguruneetan bizi kalitate ona orekaz erraztuz, horrela landa ingurunetik jendeak alde egitea saihestuz eta, beraz, natur eta kultur ingurunearen kudeaketa arduratsua nahiz landa inguruneeko sektore ekonomiko potentzialen garapenean arduraz jokatzeko dela bermatuz, eta landa ingurunearen sozializazioa erraztuz, tokiko biztanleek euren garapenean bertan parte hartzearen bidez.

- Ingurumena.- Nafarroako erkidegoko landa lurralde bakoitzeko berariazko natur ondarea konserbatuz, leheneratuz, finkatuz eta balorizatuz.

Zioak: 1. artikulua xehetasun gehiagoko testua izatea proposatzen da.

### 3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

#### 2. ZUZENKETA

##### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

Nafarroako Foru Komunitateko garapen politikaren helburu orokorrak.

Honako hauek dira landa garapenaren esparruan administrazio publikoaren ekintza guztiek jomuga izan behar dituzten helburu orokorrak ekintza horietako bakoitzean, gogoan izanik Nafarroako erkidegoko ingurumenaren errespetua, babesa eta hobekuntza:

– Lehen sektorea ematea gure landa ingurunearen garapen orekatuaren oinarriak bermatuko dituzten kalitatezko azpiegiturak garatzeari.

- Komunikazio-azpiegiturak (errepide-sarea, garraio publikoaren sarea eta telekomunikazioak), biztanleentzako zerbitzuen azpiegiturak eta energia azpiegiturak.

– Nafarroako landa ingurunean kalitatezko erkidego-ekipamenduen banaketa orekatua garatu, erraztu eta bultzatzea, biztanleriako sektore guztiek ekipamendu horiek eskura izan ditzaten ahalbidetzeko, landa populazioaren beharrezanez erantzunez eta ekipamendu horien zonifikazio zurruna saihestuz.

- Erkidegoarentzako ekipamenduak (hezkuntza, osasuna eta gizarte-laguntza, aisialdia, kirola eta kultura).

– Lurraldearen antolamendu zentzuzkoa sustatzea, landa izaerako guneetan etxebizitza eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka bereziki azpimarratuz, landa ingurunean abandonaturik dauden etxebizitzak eta eraikinak erabiltzeko pizgarriak emanez.

– Landa ingurunekeo ekonomia dibertsifikatzea,

- Lehen sektorea finkatuz eta zentzuz garatuz, merkatuko joera orokorren eta Europak sektorean ezarritako murrizketen arabera.

- Lehen sektorearen lehiakortasun-ahalmeneren hobekuntza sustatuz; elkartegintza eta nekazaritzako elikagaien kalitatea sustatuz.

- Landa ingurunera jarduera ekonomiko berriak (zerbitzuak eta industria) erakartzea erraztuz.

- Landa ingurunekeo biztanleen laneratzea erraztuz; batez ere, emakumeena eta gazteena.

– Landa eskualdeetako natur eta kultur ondarea mantendu, gorde, haren berri eman, errentabilizatu eta balorizatzea, biztanleak euren ingurunearekin identifikatzeko oinarritzeko prozesu gisa eta lurralde-atxikimenduaren sentimena indartzeko.

– Administrazio eta entitate publikoen arauak eta jarduketak, landa eremuen garapenean eragina dutenak, bateratzea, funtzionaltasun eta koor-

dinazio falta saihesteko eta horrekin batera tresnen koherentzia hobea eta inbertsioen eraginkortasuna handiagoa izateko, eta landa eta hiri inguruneak uztartzeko.

– Biztanleen garapenean beraiek izan beharreko protagonismoa mantendu eta hobetzea, elkartegintza sustatuz eta emakume eta gazteen sektorea landa ingurunearen arlo ekonomiko eta sozialarekin lotura daukaten erabakiak hartzeko prozesuetan txertatuz.

– Nafarroako gizartean landa ingurunekeo baloreekiko sentsibilitate handiagoa sustatzea, haren garapenaren aldeko neurriak ezartzen lagunduz.

Zioak: 3. artikuluko xehetasun gehiagoko testua izatea proposatzen da.

### 3. ZUZENKETA

#### NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 3. idatz-zatiari g) letra bat gehitzeko zuzenketa, industri eta lan politikari buruzkoa. Hona testua:

g) Inbertsioari laguntzeko politika fiskal bat ezartzea, landa eskualdeetako inbertsioen aldeko diskriminazioa eginen duena, diskriminazio positiboa eginez landa eskualdeetako jarduera ekonomikoaren mesedetan, halakoak ez direnen aldean.

Zioak: Jokabide hori ez da ia inongo departamentutan aplikatzen, eta aplikatzen denean, Industriakoan kasu, barregarria da, egiten den bereizketa bakarra Iruña eta gainerakoaren artekoa baita; hau da, laguntza bera jasotzen dute Eguesen edo Altsasun kokaturiko enpresa batek eta Galipentzun edo Abaurregainan kokatzen den beste batek.

### 4. ZUZENKETA

#### NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 5. idatz-zatiari b) letra bat gehitzeko zuzenketa, etxebizitzari buruzkoa. Hona testua:

b) Etxebizitzak zaharberitzearen arloan malgutasuna hobetzea, baita etxebizitzaren egitura osaketa aldatzen duten edo eraikina husten duten obrak zaharberitze gisa ez onartzeko neurria ezeztatuz ere.

Zioak: Landa inguruneetako eraikin historiko askotan beharrezkoa da halako neurriei ekitea (kanpoko paretak gordetzen dira soilik). Aurrekoarekin zerikusirik ez duten forjatu horizontal edo bertikalez eginiko etxebizitza berriak eginda ere, interesgarria litzateke haiek ere egiazko zaharberritze proiektutzat onartzea. Horrelako obretarako pizgarriak ematen ez bada, sustatzaileek horrelako eraikinak erosi eta haietan etxebizitzak egiteko ideia bertan behera uzten dute, eta egoera hobean dauden edo berriki eraikiak diren beste batzuk erostea erabakitzen dute; horrela, bada, erabilera-rik gabeko ondarea egoera larri bat pairatzera pasatzen da, hondatu eta abandonaturik.

## 5. ZUZENKETA

### NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 5. idatz-zatiari c) letra bat gehitzeko zuzenketa, etxebizitzari buruzkoa. Hona testua:

c) Etxebizitzak zaharberritzeko bulegoak Nafarroa guztian sortzea, eta kontserbazio-arazo larriak dauzkaten alde historikoak dituzten landa ingurune herrientzat Lehenatasunez Zaharberritzeko Eremuen deklarazioa erraztea, landa inguruneetan etxebizitza berriak egiteko laguntzen muga, 90 metro koadrokoa, kenduz, hala babes ofizialeko etxebizitzari nola zaharberritzei dagokienez.

Zioak: Eraikinak zaharberritzeko bulegorik ez daukaten eskualdeak badaude Nafarroan, eta Nafarroako Gobernuari dagokio pizgarriak ematea landa inguruneetako herrietako alde zaharrak zaharberritzeari emandako tratamendua hobetzeko. Bestalde, etxebizitza baterako 90 metro koadroko muga ezin da aplikatu landa ingurunean, zaharberritze-gaietan ez ezik babes ofizialeko etxebizitzan banakako sustapenetan ere; izan ere, ingurune errealitate ekonomikoak (nekazaritza-koak) eta sozialak beharrezko bihurtzen du bizi-eremu zabalagoa izatea.

## 6. ZUZENKETA

### NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 6. idatz-zatiari f) letra bat gehitzeko zuzenketa, hezkuntza eta kulturaren arloko politikari buruzkoa. Hona testua:

f) Vianako Printzea Erakundeak daukan ondare historiko-artistikoaren inbentarioan jasotako etxebizitzan teilatu eta fatxadak barnean hartzen dituzten zaharberritze guztietarako pizgarriak ematea, laguntzen ehunekoa handituz.

Zioak: Gaur egun Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren deialdi bat dago, aurrekontu urria daukana, eta horretara urtero inbentarioko ehun etxebizitza baino gehiago aurkezten dira, zeinetatik batzuetan % 50era ere iristen ez den multzo batek soilik jaso baitezake dirulaguntza. Gure ustez, deialdi horrek funtzionatzen segitu behar du, dituen irizpideak eta guzti (arrazoi historiko-artistikoei jarraituz ematea pizgarriak), baina pentsatzen dugu Nafarroako Ondare Historiko Artistikoaren Inbentarioan jasotako etxebizitza bakar bat ere ezin dela gelditu gutxieneko dirulaguntza bat jaso gabe. Gaur egun arlo honetan izandako jokabidearekin haserre eta etsipen handia dago, eta orain proposatzen den neurriak, bestalde, ez luke ordainketa handirik egin beharrik ekarriko. Jakina, atal honetatik diruz lagunduriko etxebizitzek irizpide batzuk bete beharko lituzkete haien zaharberritzeari dagokionez.

## 7. ZUZENKETA

### NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 6. idatz-zatiari g) letra bat gehitzeko zuzenketa, hezkuntza eta kulturaren arloko politikari buruzkoa. Hona testua:

g) Landa inguruneetako heziketa-ekipamenduak hornitzea landa ingurunearen beharrianak Nafarroako biztanleen lan-eskaerekin integratuko dituzten modulu eta estrategia pedagogikoez, horrela zentro horiek bizi ahal daitezen eta bertako nahiz kanpoko ikasleak landa-eskualdeetan geratu ahal izan daitezen.

Zioak: Landa inguruneko biztanleei heziketa baliagarria erraztea.

## 8. ZUZENKETA

### NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 8. idatz-zatiari f) letra bat gehitzeko zuzenketa, garraio eta komunikazioen arloari buruzkoa. Hona testua:

f) Landa eskualdeen isolamendua saihestu edo gutxienez murrizteko aurrerapen tekniko guz-

tiek Nafarroako lurraldearen zatirik handienean aplikazio praktikoa izan ahal izatea lortzea, berdin delarik kasuko lurraldea oso urrun edo bazterturik egotea. Inbertsioen eta azpiegituren arloan arloan ahalegin handia egitea suposatzen du.

Zioak: Landa arloko teknologia berriak eskuratu ahal izatea erraztea.

## 9. ZUZENKETA

### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren titulutik aurrera aldaketa orokorra egiteko zuzenketa. Honako hau esan ordez: "Nafarroako landa garapenaren urte anitzeko plana", hauxe esan behar du: "Landa garapenaren urte anitzeko erregio eta eskualde plan estrategikoa".

Zioak: Gure ustez, hobeki definitzen du planak izan behar duen edukia.

### 5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

## 10. ZUZENKETA

### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 5. artikuluan ordezketa hau egitea proposatzen da:

"5. artikulua. Plana onesteko prozedura.

Plana Nafarroako Gobernuak onetsiko du,"

Zioak: Plan hori onestea ez dagokio Parlamentuari.

### 7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

## 11. ZUZENKETA

### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 7. artikuluan ordezketa hau egitea proposatzen da:

"7. artikulua. Planaren jarraipena eta ebaluazioa.

Nafarroako Gobernuak urtero baloratuko du plana noraino bete den.

Horretarako, txosten bat eman beharko du."

Zioak: Plana baloratzea ez da Nafarroako Landa Garapenerako Kontseilua deritzonaren eskumena.

## 12. ZUZENKETA

### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako hau esan ordez: "Dokumentu hori Nafarroako Foru Parlamentura igorriko da...", honako hau esan behar du: "Dokumentu hori Nafarroako Parlamentura igorriko da...".

Zioak: Nafarroako Foru Parlamenturik jadanik ez dago.

### 8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

## 13. ZUZENKETA

### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, foru-esparrukoa den lege honi ez dagokio beste esparru batzuetakoak diren gaiak arautzea.

## 14. ZUZENKETA

### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

"8. artikulua. Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen jarduketak."

Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek, haien eskumenen esparruan, Estatuko eta Europako Batasuneko gainerako administrazio publikoekin koordinaturik egingen dute lan, lege honen xedeari eta esparruari dagokienez. Hitzarmen bidez ezarri ahalko da zein den batera aritzeko eta esku hartzeko maila."

Zioak: Nafarroako Gobernuak ez da administrazio publikoa.

**9. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**15. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

9. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

“9. artikulua. Landa garapeneko politikaren jarraibideak.

Gobernuak eta toki entitateek planean landa garapeneko politikarako aurreikusiriko jarraibideak gauzatu eta beteko dituzte, baita plana osatzen duten programak egokituko ere. Xede horrekin, behar diren lankidetzak hitzarmenak ezarri ahalko dira, zehaztuko den epean eta moduan.”

Zioak: Landa garapeneko toki elkarteek ez daukate eskumenik esleitzen zaien eginkizunerako.

**10. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**16. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

10. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Gobernuak bakarra da, eta eskumenak eskuordetzan ematea hari dagokio, betiere.

**17. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO**  
**DE NAVARRA**  
**PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

10. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, Nafarroako Gobernuko departamentuen eginkizunak arautzea ez dagokio lege honi.

**11. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**18. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

11. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 10. artikulua aurkezturiko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

**12. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**19. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 10. artikulua aurkezturiko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

**13. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**20. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

13. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Testuak ziurgabetasuna sortzen du, ez baita jakiten uzten sortu nahi denaren izaera juridikoa ez eta tipologia ere; betiere organo aholku-emaile bat izan beharko du.

**14. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**21. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

14. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 13. artikulua aurkezturiko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

**22. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

14. artikuluko hirugarren lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Badirudi proposamena abstraktuegia dela beranduago aplikatu ahal izateko.

**15. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****23. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

15. artikulua testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 13. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

**16. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****24. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Testua Konstituzioaren aurkakoa izan liteke, Biltzarreko zerbitzuek prestatuturiko txosten juridikoan adierazten den bezalaxe.

**17. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****25. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

17. artikulua testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kontraesanean dago erdietsi nahi omen duen helburuarekin, Biltzarreko zerbitzu juridikoek prestatuturiko txostenean adierazten den bezalaxe.

**XEDAPEN GEHIGARRIEI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****26. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarriaren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko beste zuzenketa batzuekin bat etortzeko.

**27. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarriaren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko beste zuzenketa batzuekin bat etortzeko.

**28. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen gehigarriaren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko beste zuzenketa batzuekin bat etortzeko.

**29. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren xedapen gehigarriaren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko beste zuzenketa batzuekin bat etortzeko.

**30. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Testuak gehiegizko zuhurtziarakotasuna ematen duela deritzogu; izan ere, Gobernuaren edozein jokabide baimendu dezake. Hobe iru-



ditzen zaigu erabakiaren jatorria Landa garapenaren urte anitzeko plana izan dadila.

## ZIOEN AZALPENARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

### 31. ZUZENKETA

#### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Laugarren lerrokatatik, zeina hasten baita esaten "Politika horiek, Europako gure testuinguruan, bat egiten dute, neurri handiagoan edo txikiagoan..." bukaerainokoa ordeztzea, testu honekin:

"Politika horiek, Europako gure testuinguruan, bat egiten dute, neurri handiagoan edo txikiagoan, hobekuntzako hiru helburu zehatz mugatzeko eta bakar batean biltzeko, alegia, Nafarroako Foru Komunitateko landa eremuetako lurralde lehiakortasuna, kohesioa eta jasangarritasuna garatzea:

1. Lehiakortasun, kohesio eta jasangarritasun ekonomikoa Nafarroako landa eremuetan, eta, horretarako, merkatuko joera orokorren eta Europak sektoreari ezarritako mugen arabera lehen sektoreko jarduera finkatzeko oinarriak ezartzea, eta landa-eskualdeen dirusarrera-iturriak lurralde bakoitzaren aukeren eta puntu sendoen arabera dibertsifikatzea, gure landa ingurunearen etorkizuna kolokan jarri gabe.

2. Lehiakortasun eta kohesio soziala Nafarroako landa eremuetan, bizi kalitate ona modu orekatuan ahalbidetuz landa eremuetan, erkidegoaren lurralde-antolamendua errazteko eta landa ingurune baliabideak arriskuan ez jartzeko moduan.

3. Nafarroako landa eremuen natur eta kultur ingurunearen lehiakortasun eta jasangarritasuna, komunitateko landa lurralde bakoitzeko natur eta kultur ondare zehatza kontserbatuz, zaharberrituz, finkatuz eta balorizatuz.

Aldi berean eta tinkotasun berarekin ekin behar zaio aurreko hiru helburu horiek garatzeari, zeren eta haien arteko orekarik ezak Nafarroako landa lurraldeen garapen eragingabe eta desorekatua ekarriko bailuke.

Hiru helburu horiek garatu behar dira honako premisa hauek kontuan izanik:

– Beharrezkoa da lana koordinatua izatea eta hartan administrazio maila guztiek (Europakoa, nazionala, eskualdekoa eta tokikoa) parte har-

tzea, bai eta administrazioak ez direnek ere (eragile ekonomikoak eta sozialak), baldin eta Nafarroako landa eremuen garapenarekin lotura badaukate.

– Beharrezkoa dira Nafarroako landa eremura zuzenduriko baliabide ekonomiko eta finantza-rioen optimizazioa eta sinergiak.

– Beharrezkoa da modu koordinatuan lan egitea komunitateko lurraldea beste lurralde batzuei irekitzean, eta gure identitatea Europako ingurunean sendotzea.

Beraz, Nafarroako landa ingurunearen etorkizuna gizarte osoaren erronka da. Beraz, multifuntzionaltasun printzipioez jantzirik espazioa izan behar du, garapen-eredu berri bat izan duena, zeinaren bitartez diskriminazio positiboa egiten baita lehen sektore arrazional bat finkatzeko laguntza publikoa ematean, sektore hori dibertsifikatuz eta jarduera ekonomiko berriei lagunduz, eskualderik behartsuenei lagunduz, landa ingurune azpiegitura eta zerbitzuak sortuz eta hobetuz, gure landa inguruneko natur eta kultur ondare kaltetu gabe eta harekiko ardura sustatuz.

– Landa ingurunean hezkuntza, osasuna, etxebizitza, aisia eta kulturarako, laneratzeko, jarduera ekonomiko berriak sortzeko, bertako natur eta kultur ondarearekiko ardura pizteko, eta komunitateko landa lurraldeak kanpoaldearekiko irekitzeko, lurralde politikako oinarriko bitarteko suertatzen dira azpiegiturak, eta faktore hori funtsezkoa eta derrigorrezkoa da Nafarroako landa lurraldeen oreka eta garapen sozioekonomikoari begira.

- Komunikazio azpiegitura. Errepide-sarea, garraio-sarea eta telekomunikazioak.

- Biztanleen zerbitzuko azpiegitura. Ur-hornidura, saneamendua, hondakinen bilketa eta tratamendua.

- Energia-azpiegitura.

Nafarroako landa lurraldeen lehiakortasunaren, kohesioaren eta jasangarritasunaren garapenak hasi behar du azpiegitura horien akatsak konponduz, bai eta landa eskualde behartsuenekiko diskriminazio positiboko politikekin ere. Azpiegitura horietan orekatuta dagoen lurralde bat oinarria da hortik abiatuz garapen orekatu eta jasangarria lortzeko ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloetan.

Abiapuntu horretatik, honako ildo hauetan lan egin beharra sortzen da:

Erkidegoarentzako ekipamenduak (hezkuntza, osasuna, aisia, kirola eta kultura).

### Hezkuntza.

Hezkuntza eskuratzea funtsezko elementutzat hartzen da populazioa lurraldean errotzeko.

- Landa eskualdeetara hezkuntza hurbiltzea lurralde artikulaziorako funtsezko tresna gisa, eta, kasua bada, hura hurbiltzerik ez dagoen landa-eskualdeetan, ekipamendu horiek kokaturik dauden lurralde-hierarkia handiagoko guneetara iristen laguntzea eta betiere kalitatezko irakaskuntza eskaintzea, Nafarroako landa ingurunearen ezauzgarrietara egokitutako hezkuntza egitura eta curriculum diseinuak zehaztuz eta irakaskuntzako profesionalentzat landa eskualdeetan lan egiteak izan dezakeen erakargarritasuna hobetuz.

### Osasuna eta gizarte laguntzako zerbitzuak.

Landa eskualdeen garapenak osasun arloko eskaintzan eta gizarte laguntzako zerbitzuetan diskriminazio positiboa eskatzen du, halaber. Zerbitzu horien eskaintza orekatuak erraztu egiten du, batez ere biztanle adintsuenengan, biztanle-sektore horrek bere ohiko bizilekuan irautea ez ezik, biztanleriako emakumezkoen sektorea laneratu ahal izatea ere. Sektore hori da, hain zuzen, famili arloko ardura bere gain hartzen segitzen duena.

- Lurralde-egituraketa orekatu batean lan egitea, ekipamendu horiek eskuratzea eta Nafarroako landa ingurunera hurbiltzea posible izateko, gaur egungo beharrezan araberako eta etorkizuneko prebentziorako, ekipamendu horiek eremu araberako zurrunki antolatzea saihestuz.

### Aisia, kirola eta kultura.

Landa eskualdeen garapenak eskatzen du, halaber, aisia, kirola eta kultura landa guneetara hurbildu eta haiek eskuratzeari dagokionez diskriminazio positiboa egitea. Beharrezan horiekiko asebetetze-mailak, batez ere landa inguruneko biztanlerik gazteenei dagokienez, korrelazio estua agertzen du etorkizunean bizilekua jaiolekuan kokatzeko asmoarekin.

- Lurralde-egituraketa orekatu batean lan egitea, ekipamendu horiek eskuratzea eta Nafarroako landa ingurunera hurbiltzea posible izateko, gaur egungo beharrezan araberako eta etorkizuneko prebentziorako, ekipamendu horiek eremu araberako zurrunki antolatzea saihestuz.

### Etxebizitza.

Beste lehentasun bat etxebizitza-eskaintza egokia eskuragarri izatea izan behar da.

- Landa ingurunean etxebizitza eta eraikin abandonatu ugari egoteak beharrezko egiten ditu

horien kontserbazio eta zaharberritzea erraztu eta horretan laguntzeko lurralde-politikak, bai eta jendeak etxebizitza eta eraikin horiek erabili ahal izatea ekarriko duten pizgarriak, dagoen etxebizitza eskariari erantzuteko eta gure ondarearekiko ardura bultzatzeko. Lurralde politikak garatzea, landa guneetako etxebizitzetan biztanle-multzo berriak modu arrazional eta orekatuan sartzeko pizgarriak emateko. Logikoa denez, lan egin behar da populatzaile berri horiei gure landa ingurunean osoki integratu ahal izan daitezen behar diren baldintza sozial eta ekonomikoak eskaintzeko.

### Jarduera ekonomikoa eta laneratzeari.

- Landa inguruneko ekonomia dibertsifikatzea, lehen sektorea sendotuz eta arrazionalki garatuz, landa lurraldeetara jarduera berriak erakarriz eta langabeziak gehien kalteturiko bi kolektiboen laneratzeari erraztuz, alegia, landa inguruneko gazteena eta emakumeena.

Azken puntu horri dagokionez, kolektibo horiei zuzenduriko enplegu-politikak koordinatu eta optimizatu egin behar dira, jardueren bikoizketa eta lanean txertatzeko proiektuan kolektibo horien saturazioa eragotziz.

### Natur eta kultur ondarea.

Nafarroako landa eskualdeetako natur eta kultur ondarea mantendu, gorde, haren berri eman, errentabilizatu eta balorizatzea oinarritzakoa da landa eskualdeetako biztanleak euren ingurunearekin identifikatzeko eta, horrela, lurralde-atxiki-menduaren sentimena indartzeko.

- Lurralde politikek balio izan behar dute gure natur eta kultur inguruneko bioaniztasunaren babesa bermatzen laguntzeko, oreka- eta erakarpen-iturria baita hori. Xede horrekin, babes-neurri zorrotzak erraztu behar dituzte hala behar denean, baina batez ere kudeaketa-neurriak garatu behar dituzte, elkarrekiko lotura izan dezaten babesak eta birbalioak, informazioak eta natur nahiz kultur ondareari buruzko hezkuntzak. Era berean, laguntza eman behar da lurraldeetako natur baliabideen kalitate eta eskuragarritasunari eusteko.

### Hori dela-eta, beharrezkoa da:

- Nafarroako landa lurralde guztirako ezar dadila landa garapenerako politika parte-hartzailea, planifikatua, hitzartua, egonkorra, bideragarria eta koordinatua.

- Garapena ahalbidetzeko esparru egonkor bat taxutzea, nahitaez sektorekako politikekin uztarturikoa. Landa inguruneko eragile ekonomiko eta

sozial guztiek garapen-politika horretan parte hartuko eta haren jarraipena ziurtatuko dute, gaur egungo nahiz etorkizuneko egoera politikoa zein den ere.

- Landa inguruneari zuzenduriko berariazko garapen-estrategia baten arabera lan egitea. Estrategia horrek oinarritua egon behar du Nafarroako Foru Komunitateko landa ingurunea osatzen duen lurralde bakoitzaren berezitasunetan eta diagnostikoan, eta horrela zehaztuko dira landa garapenerako politika horretan proposaturiko jarduerak. Landa garapenaren erregio planifikazio estrategiko bat taxutzea.

- Honakoen parte-hartzea izanen duen lan-prozedura bat ezartzea: sektoreetako politiketan eta lurraldearen antolamendukoetan eskudun diren agentariak, Europako, nazioetako, erregioetako eta tokiko administrazio-entitateak, eta Nafarroako landa-lurraldeen garapenean parte hartzen duten eragile ekonomiko eta sozial guztiak.

- Landa garapenerako politikan proposaturiko jarduerak denboran eta espazioan koherentziaz eta orekaz aplikatzeko prozedura bat ezartzea.

- Landa garapenerako legeari eta politikari eta haren aplikazioari buruzko jarraipen, kontrol eta ebaluazio jarraituko prozedura bat ezartzea.

Landa ingurunearen garapen arazoak ez dira hartu behar landa eremuen eta hiri eremuen elkarren aurkako oposizioaren ondorioztat, baizik eta landa gunez eta hiri gunez osaturiko erkidego bat ukitzen duten arazo komun – lurraldearen antolamenduari arlokoak- batzuen ondorioztat.

Beharrezkoa da hiri eremu direnen eta landa eremu direnen baloreen arteko oreka berria bilatzea, aintzat hartzeko lurraldearen antolamenduko politikekiko eta Nafarroako landa ingurunean

espazio eragina duten beste batzuekiko osagarritasuna.

Landa garapenerako politika berriak islatu behar du hiri eta landa eremuak elkarren menpekoak direla, elkarren arteko oreka berria sustatu eta neurriak hartu biztanle guztientzat garrantzitsutzat jotzen diren helburuen egiturazko finantzaketarako.

Landa garapenerako politika horrek behar du:

- Arau-esparru bat, araubidea ezarriko diona, haren jarraipena ziurtatuko duena eta prozesua bermatuko duena.

- Garapenerako urte anitzeko erregio eta eskualde plan estrategikoa zehaztea.

- Lurralde-hitzarmena, plan estrategiko hori landu, aplikatu eta ebaluatzeko prozesuari bitartekoak eta zilegitasuna emateko.

Legearen lehendabiziko tituluan legearen beraren xedea eta helburuak, orokorrak zein sektorialak, daude ezarriak.

II. tituluko I. kapituluak Landa garapenerako urte anitzeko erregio eta eskualde plan estrategikoa prestatzeko prozedura eta plan horren oinarritzko helburua zehazten ditu, eta Nafarroako landa ingurunearen lehiakortasuna, kohesioa eta iraunkortasuna lortzeko bitarteko gisa hartzen du plana.

II. tituluko II. kapituluak Nafarroako landa garapenaren Kontseiluaren eraketa, osaketa eta jardunbideari heltzen die, bai eta landa garapenaren plana prestatzeko prozedurari ere.

Zioak: Proposatzen den zioen azalpenak gure proposamenaren oinarri den filosofia politikoa zehaztasun handiagoz agertzen du.

## Foru Lege proposamena, Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 1eko 4/1988 Foru Legea aldatzekoa

### AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128 artikulua ezarritakoa betez, 2002ko maiatzaren 6ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 1eko 4/1988 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Biltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezkeen agintzen da.

Iruñean, 2002ko abenduaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### 1. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

“7.2. Eraikinaren solairuen kopurua beheko planta gehi beste bi baino handiagoa denean, eraikin publiko edo etxebizitza kolektiboko eraikin horietan garatzen den komunikazio bertikaletako gune bakoitzean, gutxienez igogailu bat proiektatu eta eginen da.

Zioak: Familia bakarreko etxebizitzak igogailua eduki beharretik salbuestea.

### 2. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapen bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta sei hilabeteko epean hartuko du indarra.

Zioak: Laster hasiko diren proiektu eta promozio batzuk badaude foru lege honen edukia aintzat hartu ez dutenak, ez zegoelako.

### 3. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hirugarren lerrokan “mugimenduzko minusbaliotasun

larriak” kendu eta “ezgaitasun fisiko larria” jartzeara, eta “horrelako minusbaliotasunak” hitzak kendu eta “horrelako ezgaitasunak” jartzeara.

Zioak: Idazkera hobetu eta kontzeptu zabalago eta orokorrago baten erabilera harmonizatu nahi da, pertsonengan eragin larria duten mugimenduzko ezgaitasun edo murriztapen guztiak sartzeko.

### 4. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gaztelaniazko testuko 4. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. lerrokan azken lerroaren bukaran “y ciudadanas” gehitzea. Euskarazko testuan zuzenketa honek ez du eraginik.

Zioak: Genero femeninoa sartzeara “todos los ciudadanos” dioen lekuan.

### 5. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Bigarren lerrokan “Edozein minusbaliotasun –organiko nahiz inguruabarrek eraginda– duten pertsonen” hitzen ordean ondokoak jartzeara: “Ezgaitasun fisiko iraunkor edo aldi baterakoa duten pertsonen”.

Zioak: Idazkera hobetu nahi da, erabili ohi den terminoa, “ezgaitu”, erabiliz, ezgaitasun hori iraunkorra nahiz aldi baterakoa edo une jakin batekoa izan. Termino hori 90eko hamarkadan hasi zen erabiltzen, bereziki LOGSEk ezgaitasun fisiko, psikiko eta sentzorialak izan eta hezkuntza premia berezi iraunkor edo aldi baterakoak zituzten haurren hezkuntza-arreta normalizatu zuenean.

## 6. ZUZENKETA

### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA** PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Hirugarren lerrokadaren hasieran eta bukaera aldean "minusbaliatu" hitza kendu nahi da, eta horren

ordez "ezgaitu", hasieran, eta "ezgaitu fisikoentzako" jartzea proposatzen da.

Zioak: Idazkera hobetu nahi da, erabili ohi den terminoa, "ezgaitu", erabiliz, gaztelaniazko minusválido hitza gizonaekoari dagokiolako bakarrik, eta minusbaliotasuna edo ezgaitasuna hitzek pertsona bera baino egoera bat izendatu behar dutelako.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Adierazpen instituzionala, Nafarroako Parlamentuak Galiziako “Nunca Más” herritarren plataformak eginiko manifestuari sostengua adiraztekoa**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2002ko abenduaren 23an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**Lehendabizikoa.** Nafarroako Parlamentuak Galiziako “Nunca Más” herritarren plataformak eginiko manifestuari sostengu emateko adierazpen politikoa onestea. Hona hemen manifestu horren testua:

**Bigarrena.** Adierazpen hau herritarren plataforma horri igortzea, bai eta Estatuko eta Galiziako gobernuei ere, eta Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Adierazpen instituzionala, Nafarroako Parlamentuak Galiziako “Nunca Más” herritarren plataformak eginiko manifestuari sostengua adiraztekoa**

Galiziako herritarrek Prestige ontziak eragindako kalteak lehenbailehen konpontzeko galdetzen ari dira; guk, bidezkoak diren eskaera horiek bideratzeko asmoarekin “Nunca Más” herritarren plataforma batasunean eta izaera irekiarekin eratzea erabaki genuen entitate askotariko eta anitzok (alderdi politikoak, sindikatuak, arrantzaleen kofradiak, itsaskilari elkarteak, talde ekologistak eta abar) hauxe exijitzen dugu:

1. Galizia hondamendi eremu deklaratzeko eta berehalakoan ematea istripuak eragindako ondorio ekonomiko, sozialak, ingurumenekoak eta osasunaren gainekoak konpontzeko behar diren baliabide mota oro.

2. Hondamendia areagotzea galaraziko duten prebentzio neurriak lehen baino lehen abiaraztea eta eskura jartzea, modu egokian, behar diren bitarteko ekonomiko eta logistikoak, beste eremu batzuk kutsa ez daitezzen, dagoeneko kutsaturik daudenak kutsadura gehiagorik izan ez dezaten eta kostalde osoa garbitu eta ingurumenaren aldetik lehengoratzeko.

3. Estatuko Gobernuak eta Galiziako Xuntak neurriak hartzea hau bezalako istripurik berriz gerta ez dadin sekula ere, -hala nola merkataritzako gai arriskutsuen trafikoa kostaldeetatik urruntzea, trafikoa kontrolatzea, itsasontzien egoera eta biltegietan gai arriskutsuak gordetzen dituzten portuetako azpiegiturak kontrolatzea-, eta Galizia hornitzea salbamendurako, itsasoko kutsaduraren kontrako borrokarako eta hondamendietan eskuhartze azkarretarako behar bezala prestaturiko dispositibo batekin.

4. Nunca Más herritarren plataformaren ustez Prestige sortutako hondamendia nazio osoan du eragina, herritar guzti-guztiak ukitzen ditu eta erantzun solidarioa eskatzen die galiziar guztiei.

5. Istripuak agerian utzi du nabarmenki aurreneurriak ez direla eragingarriak istripu mota hau gertatzea ekiditeko, hondamendi hauei aurre egiteko larrialdi planik ez dagoela, salbamendu eta kutsaduraren kontrako borroka lanetan inprobisazioa eta koordinazio eza nagusitu dela eta egoera hauei buru egiteko giza eta teknika arloko baliabide eskasia erabatekoa dela.

6. Akats eta hutsune hauetatik heldu diren erantzukizunak salatzen ditugu, agintarien dimisioa eskatzen dugu, haien eragingarritasun eta erantzukizun ezaren ondorioz istripuaren kalteak ezin txarragoak izan baitira; eta eskakizunetan jaso diren neurriak ondorio guztiekin abian jartzea

ere eskatzen dugu, gure kostaldeek behin eta berriz pairatzen dituzten hondamendiak (Polycommander, Urkiola, Erkowit, Andros, Pátria, Casón,

Mar Exeo...), gizarteari hain sufrimendu handia ekartzen diotenak, ez daitezen gerta NUNCA MÁIS”.

---

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileentzako 2003. urteko lan egutegia**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko abenduaren 23an egindako bilkuran, honako erabakia hartu zuen, besteak beste:

Legelari nagusiaren txostena ikusita eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 37. artikuluan xedatuarekin bat etorritz, ondorengo ERABAKI DA:

**1.** Aste barruko jaiegunen eta egun berezien egutegia onetsi da, 2003 urterako. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen egutegia honako hau izanen da:

- Uztailaren 7a, 8a, 9a eta 10a: San Fermintako jaiegunak.
- Uztailaren 11 eta abenduaren 24a eta 31: jaiegunak.
- Uztailaren 11 eta abenduaren 26a: lanaldia 09:00etan hasi eta 14:00etan bukatuko da.

Gainerako jaiegunak, Foru Komunitateko Administrazio osoarentzat ezarritakoak berak izanen dira.

**2.** Eguneko lanaldia, egun indarrean dagoena bera izanen da.

Urtarrilean lanaldia 08:00etan hasi eta 15:00etan bukatuko da.

Uztailean, abuztuan eta iraileko lehengo hamabostaldian lanaldia 08:00etan hasi eta 14:30ean bukatuko da.

**3.** Gainerako egunetarako, ondorengo lan-txandak ezarri dira, langile guztientzat ezarri ere (talde bakoitzaren berezitasunak ere kontuan hartu beharrekoak dira):

- a) Goizeko txanda.
- b) Goiz eta arratsaldeko txanda.
- c) Arratsaldeko txanda.

**4.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2002ko abenduaren 26an

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués



## Nafarroako Parlamentuko Bulego Orokorretako erregistroaren 2003. urteko ordutegi ofiziala

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko abenduaren 23an eginiko bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 107. artikulua ezarritakoarekin bat, ERABAKI DA:

1. 2003 urtean Parlamentuko Bulego Orokorretako erregistroaren ordutegi ofiziala hurrengoan izanen dela erabakitzea:

Ohiko bilkuraldia:

- Astelehenetik ostiralera:

09:00etatik 14:30era.

17:00etatik 19:00etara.

- Larunbatetan: itxita.

- Abenduaren 26an, 09:00etatik 14:00etara.

- Abenduaren 24an eta 31n itxita izanen da eta jaiegun izanen da ondorio guztietarako.

Bilkuren arteko aldia:

- Astelehenetik ostiralera:

09:00etatik 14:00etara.

- Larunbatetan: itxita.

Uztailaren 7, 8, 9, 10 eta 11n itxita izanen da eta jaiegun izanen dira ondorio guztietarako.

2. Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako markatzen diren igande eta jaiegunak izanen dira jaiegun.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko abenduaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari baten lanpostua oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko

### Izendapen proposamena

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari baten lanpostua oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko asmoz Mahaiak 2002ko apirilaren 15eko erabakiaren bitartez deitutako oposizioa amaiturik (2002ko apirilaren 23ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 2002ko maiatzaren 8ko 56. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuta), epaimahaiak ondoko erabakiak jakinarazten ditu:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari baten lanpostua oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko deialdiko gaudituen zerrenda onestea, puntuazioaren arabera:

1. Vidán Astiz, Laura.....86,35 puntu.

2. Martínez Cía, Ana.....85,25 puntu.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea Laura Vidán Astiz andrearen aldeko izendapen proposamena administrazio kudeaketako teknikari lanposturako, deialdiko 7.1 oinarrian xedatutakoarekin bat. Deialdia 2002ko apirilaren 15ean onetsi eta 2002ko maiatzaren 8ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Eta guzti hau jakinarazten da interesatuak deialdiko 7.2 oinarrian eskaturiko dokumentazioa aurkez dezan.

Iruñean, 2002ko azaroaren 25ean

Epaimahaiko idazkaria: Luis Javier Fortún Pérez de Ciriza

## **Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile izateko lanpostu huts bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko**

### **Izendapena**

Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile izateko lanpostu huts bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko asmoz Erakunde horren Lehendakariak 2002ko ekainaren 10ean onetsitako erabakiaren bitartez deitutako oposizioa amaiturik (uztailaren 12ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta uztailearen 12ko 84. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuta), ikusita epaimahaiak Fermín Erbiti Zabalza jaunaren alde emandako izendapen proposamena (2002ko abenduaren 11ko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua) interesatuak deialdiko 7.3 oinarriak aipatzen duen dokumentazioa aurkeztuta, proposatutako

izangaia izendatu behar da. Hori dela eta, Lehendakaritza honek ERABAKI DU:


**Lehendabizikoa.** Fermín Erbiti Zabalza jauna Nafarroako Kontuen Ganbararen funtzionario izendatzea kazetari-itzultzaile gisa.

**Bigarrena.** Interesatuak hilabete bateko epea izanen duela, izendapena jakinarazten zaionetik aitzina, lanpostuaren jabetza hartzeko xedatzea.

**Hirugarrena.** Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2002ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> <b>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</b> Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat ..... 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,14 »	